

ARIKETAK

1 HIZTEGI BATUA

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan oinarrituta daude ondoko ariketak. Hautatu zure ustez zuzena den erantzuna, baina kontuan izan: inoiz bat baino gehiago izango dira erantzun zuzenak.

1. a) Buruari **jira bira** asko emanda atera dut azkenean erantzun zuzena.
b) Buruari **jira-bira** asko emanda atera dut azkenean erantzun zuzena.
c) Buruari **jirabira** asko emanda atera dut azkenean erantzun zuzena.
2. a) **Tolarean** sagarra zapaltzen da, sagardoa ateratzeko.
b) **Dolarean** sagarra zapaltzen da, sagardoa ateratzeko.
3. a) Orria errazago sartuko da gutun-azalean, hiru zatitan **tolestatzen** baduzu.
b) Orria errazago sartuko da gutun-azalean, hiru zatitan **tolestean** baduzu.
4. a) Ez niri **tonu** horretan hitz egin!
b) Ez niri **tono** horretan hitz egin!
5. a) Erregina jango dizut, **torrea** mugituz gero.
b) Erregina jango dizut, **dorrea** mugituz gero.
6. a) Batzuei bost axola zaie helburuak lortzeko **txakurkeriatan** ibili behar badute ere.
b) Batzuei bost axola zaie helburuak lortzeko **zakurkeriatan** ibili behar badute ere.
7. a) Gosaltzeko zer dagoen? Txepetxaren muinak eta **inurriaren** hesteak.
b) Gosaltzeko zer dagoen? Txepetxaren muinak eta **txingurriaren** hesteak.
c) Gosaltzeko zer dagoen? Txepetxaren muinak eta **txindurriaren** hesteak.
8. a) Hori, gaiztoa? Bai zera! Ez luke asmatuko **txita** bati gaitz egiten ere.
b) Hori, gaiztoa? Bai zera! Ez luke asmatuko **txifo** bati gaitz egiten ere.
9. a) Albistea jasotzean **txuri-txuri** eginda gelditu zen.
b) Albistea jasotzean **zuri-zuri** eginda gelditu zen.
10. a) Hi, John Silver, zein **ugartetan** ezkutatu duk hire atxorra?
b) Hi, John Silver, zein **uhartetan** ezkutatu duk hire atxorra?
11. a) Hamaika aldiz azalduta ere ez diozu ezer **ulerraraziko**.
b) Hamaika aldiz azalduta ere ez diozu ezer **ulertaraziko**.
c) Hamaika aldiz azalduta ere ez diozu ezer **ulertuaraziko**.
d) Hamaika aldiz azalduta ere ez diozu ezer **ulertu araziko**.
12. a) 'Victoria' zen Elkanoren **ontzia**.
b) 'Victoria' zen Elkanoren **untzia**.
13. a) Euria egiten duenean, zurezko leihoak **uhanditu** egiten dira eta ezin ditugu ondo itxi.
b) Euria egiten duenean, zurezko leihoak **uranditu** egiten dira eta ezin ditugu ondo itxi.
14. a) Senide urrunekoa baino, auzo **hurkoa** hobe.
b) Senide urrunekoa baino, auzo **urkoa** hobe.
15. a) Txakurra artega dago: ehiza **usaitu** duela uste dut.
b) Txakurra artega dago: ehiza **uscaindu** duela uste dut.
c) Txakurra artega dago: ehiza **usnatu** duela uste dut.
16. a) Betiko leloarekin berriz? Zahar **usaia** dario kontu horri.
b) Betiko leloarekin berriz? Zahar **uscaina** dario kontu horri.

17. a) **Sagu zaharrak** ditugu teilatupean.
b) **Saguzaharrak** ditugu teilatupean.
c) **Saguzarrak** ditugu teilatupean.
18. a) Lausengu **xarmagarriei**, belarriak itxi.
b) Lausengu **xarmangarriei**, belarriak itxi.
19. a) Txistuaren antzekoa da **txirula**, baina txikiagoa eta zoliagoa da.
b) Txistuaren antzekoa da **xirula**, baina txikiagoa eta zoliagoa da.
20. a) Alaba hortxe duzu, aspertuta, bilera bukatu eta etxera joateko **zai**.
b) Alaba hortxe duzu, aspertuta, bilera bukatu eta etxera joateko **zain**.
21. a) Laguna nazkatu egin zen **zapata dendaz**, eta mundua ezagutzera abiatu zen.
b) Laguna nazkatu egin zen **zapata-dendaz**, eta mundua ezagutzera abiatu zen.
c) Laguna nazkatu egin zen **zapatadendaz**, eta mundua ezagutzera abiatu zen.
d) Laguna nazkatu egin zen **zapategiaz**, eta mundua ezagutzera abiatu zen.
22. a) Bolada honetan asko entzuten da musika **keltiarra**.
b) Bolada honetan asko entzuten da musika **zelta**.
c) Bolada honetan asko entzuten da musika **zeltiarra**.
23. a) Ikastaroa gaingitu dudanez **egiaztagiria** nahi dut.
b) Ikastaroa gaingitu dudanez **zertifikatua** nahi dut.
c) Ikastaroa gaingitu dudanez **zihurtagiria** nahi dut.
d) Ikastaroa gaingitu dudanez **ziurtagiria** nahi dut.
24. a) Hartu **aho-zapi** bat eta garbitu mutur horiek, arren!
b) Hartu **zerbieta** bat eta garbitu mutur horiek, arren!
c) Hartu **zerbilleta** bat eta garbitu mutur horiek, arren!
25. a) Oinak **zerbitzen** du eskua, eta eskuak oina.
b) Oinak **zerbitzaten** du eskua, eta eskuak oina.
26. a) **Burmuina** bor-bor daukat: baietz soluzioa aurkitu!
b) **Zerebroa** bor-bor daukat: baietz soluzioa aurkitu!
27. a) Sutan alde egin zuen eta hots handi bat eraginez **Itxi** zuen atea.
b) Sutan alde egin zuen eta hots handi bat eraginez **zarratu** zuen atea.
c) Sutan alde egin zuen eta hots handi bat eraginez **zerratu** zuen atea.
28. a) Giltza **sarrailan** sartuta gelditu da eta ezin naiz bulegora sartu.
b) Giltza **zarrailan** sartuta gelditu da eta ezin naiz bulegora sartu.
c) Giltza **zerrailan** sartuta gelditu da eta ezin naiz bulegora sartu.
29. a) Bill Clintonek **puruak** maite omen ditu.
b) Bill Clintonek **zigarroak** maite omen ditu.
30. a) Hemen ezin da erre: itzaliko al duzu **zigarroa**, axola ez badizu?
b) Hemen ezin da erre: itzaliko al duzu **zigarreta**, axola ez badizu?
31. a) Horrek oraindik uste du **amiamokoak** ekartzen dituela umeak.
b) Horrek oraindik uste du **zigoinak** ekartzen dituela umeak.
c) Horrek oraindik uste du **zikoinak** ekartzen dituela umeak.
32. a) Ba al dakizu **merkurioak** urrea jaten duela.
b) Ba al dakizu **zilarbiziak** urrea jaten duela.
33. a) Neke alferra, arbola ihartuari **simaurra** botatzea.
b) Neke alferra, arbola ihartuari **zimaorra** botatzea.
34. a) Zer egin nahi duzu asteburu honetan? **Zinera** joan nahi duzu?
b) Zer egin nahi duzu asteburu honetan? **Zinemara** joan nahi duzu?

35. a) Txikitan askotan joaten nintzen **zirkora**, baina orain ez, ez zaidalako gustatzen animaliekin zer egiten duten ikustea.
b) Txikitan askotan joaten nintzen **zirkura**, baina orain ez, ez zaidalako gustatzen animaliekin zer egiten duten ikustea.
36. a) Auto lasterketak egiteko **zirkuitoa** ematen du gure kaleak larunbat gauetan.
b) Auto lasterketak egiteko **zirkuitua** ematen du gure kaleak larunbat gauetan.
37. a) **Zirkulo** itxurako seinaleek debekua adierazten dute.
b) **Zirkulu** itxurako seinaleek debekua adierazten dute.
38. a) Etxera etortzeko ez duzu hirigunean zertan sarturik; hobe **ingurabidefik** bazatoz.
b) Etxera etortzeko ez duzu hirigunean zertan sarturik; hobe **ingurubidefik** bazatoz.
c) Etxera etortzeko ez duzu hirigunean zertan sarturik; hobe **zirkunbalaziotik** bazatoz.
39. a) Soinean silikona jartzeari **kirurgia** kosmetikoa esaten zaio orain.
b) Soinean silikona jartzeari **kirurja** kosmetikoa esaten zaio orain.
c) Soinean silikona jartzeari **zirujia** kosmetikoa esaten zaio orain.
40. a) Zuzendariarekin hitz egin nahi baduzu, alde zuretik **hitzordua** eskatu beharko duzu.
b) Zuzendariarekin hitz egin nahi baduzu, alde zuretik **zifra** eskatu beharko duzu.
41. a) Buruz nabilenez, ez nago **zihur** hala gertatu zenik.
b) Buruz nabilenez, ez nago **ziur** hala gertatu zenik.
42. a) Zu beti ametsetan: oinak **zolan** ibili behar da munduan.
b) Zu beti ametsetan: oinak **zolan** ibili behar da munduan.
c) Zu beti ametsetan: oinak **zoruan** ibili behar da munduan.
43. a) **Suspertu** zaitetz, lagun! Zure gisa nago ni ere.
b) **Suzpeltu** zaitetz, lagun! Zure gisa nago ni ere.
c) **Zuzpeltu** zaitetz, lagun! Zure gisa nago ni ere.
44. a) Lotan ez zeunden bada! **Zurrungaka** ari zinen gero.
b) Lotan ez zeunden bada! **Zurrunka** ari zinen gero.
45. a) Goizero-goizero **laranja-ura** edaten dut makina berritik.
b) Goizero-goizero **laranja-zukua** edaten dut makina berritik.
c) Goizero-goizero **laranja-zumoa** edaten dut makina berritik.
46. a) Inork ez al du lan hori? **Zotz egin** beharko dugu, beraz.
b) Inork ez al du lan hori? **Zozkatu** egin beharko dugu, beraz.
c) Inork ez al du lan hori? **Zozketatu** egin beharko dugu, beraz.
47. a) Egin duen azken liburuak luma **zorrotzarazi** die kritiko batzuei.
b) Egin duen azken liburuak luma **zorrotzarazi** die kritiko batzuei.
c) Egin duen azken liburuak luma **zorrotzarazi** die kritiko batzuei.
48. a) Astelehenean nire **urtebetetza** da: etorriko al zara?
b) Astelehenean nire **urtebetetzea** da: etorriko al zara?
c) Astelehenean nire **zorionak** dira: etorriko al zara?
49. a) Ahoa zabalik dituzu zapatak. Ea **zolak** konpontzen dituzun!
b) Ahoa zabalik dituzu zapatak. Ea **zoluak** konpontzen dituzun!
c) Ahoa zabalik dituzu zapatak. Ea **zoruak** konpontzen dituzun!
50. a) Horra doaz bi mozkorak: ezker-eskuin, **sigi-sagaka**, hurrengo tabernaraino.
b) Horra doaz bi mozkorak: ezker-eskuin, **sigi-sagan**, hurrengo tabernaraino.
c) Horra doaz bi mozkorak: ezker-eskuin, **zig-zag** eginez, hurrengo tabernaraino.
d) Horra doaz bi mozkorak: ezker-eskuin, **zig-zagean**, hurrengo tabernaraino.

SOLUZIOAK

1 HIZTEGI BATUA

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren arabera daude emanda soluzioak. Inoz gerta liteke soluzio-etako bat hobetsia izatea: horrek ez du esan nahi beste erantzuna okerra denik, baizik eta bigarren mailakoa dela, hizkera maila arruntagokoa delako edo, euskara batuko forma izanda ere, euskalki marka duelako: B. (Bizkaia) Ip. (Iparraldea), L. (Lapurdi), N (Nafarroa).

1. c
2. b
3. b (hobe)
4. a
5. b
6. a
7. a eta c
8. a
9. b
10. b
11. a
12. a
13. a
14. a
15. b eta c
16. a (Ip. Eta N.) eta b
17. c
18. a
19. a
20. b
21. a eta b
22. b
23. a eta c
24. a
25. b
26. hobe a; b (H.)
27. a, b (L. eta N.) eta c (B.)
28. a
29. a (H.) eta b (hobe)
30. hobe b
31. a eta c
32. a eta b
33. a
34. hobe c
35. b
36. b
37. b
38. a
39. a
40. hobe a
41. b
42. a (Ip.) eta c
43. a
44. a
45. a eta b
46. hobe a eta b
47. a
48. b
49. a (Ip.) eta c
50. a eta b

